# Bienvenidos al País Vasco

# Ongi etorriak Euskadira

*Euskaditik, guztioi agur.*

*Euskadiko Mendi Injinari Teknikoen Elkarte eta Elkargo Ofizialaren Lurraldeko Lehendakari eta Dekanoa naizen aldetik, plazer eta ohore bat da niretzat zuengana hitz hauen bitartez iristea, ofizio-kide edo ez, eskuartean duzuen gure FORESTA aldizkariaren Euskadiri buruzko ale berezi hau dela eta.*

*Egungo egoera ekonomikoak bestelakorik bazioen ere, beste behin ere gure elkargo taldeak ahalbidetu du eragozpen eta oztopo guztien gainetik, ale berri eta berezi hau kaleratzea. Eta baita horretarako gure artean izan zitekeen unerik egokienaz baliatu ere, hau da, urtero ospatu ohi dugun Batzar Orokorra, aurtengoan hemen, Euskadin, Donostian, hain zuzen ere.*

*Gizalegezkoa da eskerrak ematea euren jakinduria aldizkari honetan doazen atal desberdinetako artikuluak burutzen lan egin duten guztiei. Zer esanik ez, hainbat instituzio, entitate eta enpresei, euren eskuzabaltasunik gabe askoz ere zailagoa izango baikenuen helburu hau betetzea. Eta nola ez, euren biziari denbora lapurtuz, ale honetan zein beste guztietan, ezinbestekoa den lan isila egiten duten lagunei, artikuluak irakurri, hutsarteez jabetu eta zuzenketak proposatuz; idatzitakoa ondo idatzia dagoela, azala eta mamia biak elkarrekin bat datozela bermatzen duten lagunak, gure aldizkariak eredugarri izaten jarraitu dezan nonnahitik begiratzen zaiola ere.*

*Ale honek, irakurleak ikusiko duen bezala, ohikoak diren Natura Ingurunea edo Kudeaketa atalez gain, gaurkotasun osoa duten Baso Ziurtatze edo Heziketa atalak ere baditu, zer esanik ez Ikerkuntza eta Historiaren ingurukoak ere. Baina*

*Desde Euskadi, saludos a todos.*

*En mi condición de Presidente y Decano Territorial de la Asociación y el Colegio Oficial de Ingenieros Técnicos Forestales de Euskadi me cabe el placer y el honor de dirigirme a tantos y tantos compañeros, forestales o no, que tienen en sus manos este nuevo ejemplar de FORESTA, concretamente, el monográfico dedicado a Euskadi.*

*Otra vez más, y pese a las circunstancias económicas que confieren al momento presente un halo de inoportunidad, nuestro colectivo colegial ha sido capaz de sortear las dificultades que han ido presentándose hasta concluir con éxito la edición de este número, que ha visto la luz públicamente en el mejor de los escenarios posibles, es decir, en el momento de la celebración de la Asamblea General Ordinaria de nuestra Asociación y Colegio Oficial, aquí en Euskadi, concretamente en San Sebastián.*

*Es de justicia agradecer el esfuerzo de todos aquellos que han aportado su conocimiento en áreas tan diversas como las que reflejan los distintos artículos, la colaboración y las generosidad de las instituciones, entidades y empresas que nos han apoyado económicamente y, cómo no, a los compañeros que velan porque el estilo y la adecuación entre el contenido y el continente sea la precisa para que esta nuestra revista siga siendo un modelo de calidad en todos los aspectos.*

*Como el lector podrá comprobar, este número cuenta, además de los más habituales apartados sobre Medio Natural o Gestión, aquellos sobre aspectos tan actuales como la Certificación o la Formación, o los más relacionados con la Historia, con una aportación especial desde el ámbito de la*

badu, nire iritziz, oso berezia den atal bat, Xabier Amuriza bertsolari handiaren eskutik poesiaren alorrera garamatzana, "atzerriko" intsinis piñuaren bertuteei duela hogeitaka urte luzatu zion oda ezin ederragoa, hain zuzen ere.

Eta "atzerritar" den baso landare baten bertuteen aipamenaz baliatu nahiko nuke zentzutasunaren alde dei bat luzatzeko, bai baitirudi azken garai hauetan, gure aurrekoen lan eskergaren emankortasunaren ondorioz, idortuak zeuden hainbat eta hainbat eremu, zuhaiztea eta aberastasun ederra sortzea zerbait kaltegarria eta gainazpikatu beharrekoa dela; eta hori nahikoa izan ez eta, hainbaten aburuz, lehen bai-lehen erabat deuseztatu beharrekoa dela.

Badirudi erraz ahazten dugula, gizakiak historian zehar ingurua erabili izan duela bere beharren erantzuna bilatzeko, eta ia-ia gaurdaino, bere behar horiek eguneroko biziraupena ziurtatzea zutela xede. Egun, eta gure inguruetan behintzat, egia da gutxiengo bat dela bere biziraupena lurraren emankortasunari lotua duena, baino ezin dugu ahaztu era batera edo bestera, hari lotua dugula gure bizia, elikagaiak, zura eta bere eratorriak, aire garbia, paisaia, fauna, aisia….., guztia datorkigu eta lurrarengandik eta zabalean, ingurutik.

Ez dirudi oso arrazoizkoa iraganeko gure basogintzari uko egitea, lan ondradu eta tinkoan oinarritutakoa, eta hainbat onura ekarri dizkigun iragana hain zuzen ere, itxura guztien arabera, gizakiaren oraina eta geroa beste izaki bizidunen menpe jartzea aldarrikatzen duen "etorkizuneko filosofiengatik", ez parean ere, gizakia bera parte den inguruan lekurik jada izango ez balu bezala. Eta are bidegabeagoa delakoan nago, egun gizarteak inoiz ez bezala badituelako hainbat eta hainbat baliabide jakintza eta ezagueraren aldetik, garaian, beharrei erantzutegatik gehienetan, eta baita ezaguera faltagatik ere beste batzuetan, eragin zitzaken hutsarteak berriro ere ez daitezen errepikatu ziurtatzeko, hortik etorri behar du eta gizartearen garapena, ez ukazio eta debekuetatik.

Honen harira esan behar da badela gaur egun ahoz aho eta nornahik eta nolanahi erabiltzen duen kontzeptu bat, jasangarritasunarena, alegia. Baina badirudi, sorreran erabat arrazoizkoa zen zerbait, egun iritzia sortzen duten gehiegik ahaztu dutela hiru zutabeen gainean formulatu zela kontzeptu hura; hau da, hiru atal behar ziren edozer ekintza

poesía, con una oda a las virtudes del pino insigne, que quien esto firma comparte plenamente con su autor, el gran "bertsolari" Xabier Amuriza.

Y aprovecho la mención a las "virtudes" de una especie forestal -alóctona o "extranjera" en estos pagos- para lanzar una llamada a la cordura, por cuanto parece que en los últimos tiempos todo lo realizado por nuestros antecesores en la ardua labor de creación de riqueza forestal en los páramos en que se habían convertido nuestros paisajes es algo pernicioso que se debe subvertir, si no eliminar cuanto antes mejor.

Parece olvidarse que el ser humano ha hecho uso del medio que lo rodea conforme a las necesidades que se le han ido presentando, por lo general, de pura subsistencia. Ahora, afortunadamente, la subsistencia está directamente ligada al medio para muy pocas personas, pero no obstante todos somos dependientes de los productos que de él proceden, sean alimentos, madera y sus derivados, aire puro, paisaje, fauna, ocio…

No parece muy razonable que ahora se abjure de nuestro pasado forestal, un pasado basado en el trabajo honrado y tenaz, en busca de un futuro en el que al parecer el ser humano debe ser desterrado del medio al que también pertenece. Y menos razonable todavía cuando en la actualidad se cuenta, por for-



edo proiektu jasangarria zela aitortzeko: atal soziala, atal ekonomikoa eta atal ekologikoa. Gaur egun, badirudi nahikoa dela hirugarren hori betetzea, inguruarekin harreman zuzenean bizi direnen beharren jasangarritasun soziala eta proposatzen diren hainbat ekintzen jasangarritasun ekonomikoa erabat ahazturik. Hortik, hiru hankako mahai hura zutik ezin egonik bilakatzea.

Egin dezagun gure lana tentuz eta ezagueraz, egin ziren hutsak gogoan izanik, baina baita gure aurrekoei zor diegun begirunea eta merituak aitortuz ere. Izan dezagun apaltasuna, gu baino lehen izan zirenei gu gaur bizi garen bezala bizitzeko aukera eman zigutelako. Ez dezagun ahaztu, “atzerritar” jotzen den intsinis piñua edo beste hainbat espezieren aitzindariak izan zirela intxaurrondoa, gaztainondoa, melokotoi-ondoa, tomateak, patatak eta beste hainbat; kendu dezagun begien aurretik epaiketa sumario baten ondoren zuhaitz mota bat onuragarri edo kaltegarria dela dioen aurreiritziz beteriko “beloa”, gizakiok zuhaitz horiez eta beste gauza guztiez egiten dugun erabilpena baita onuragarria edo kaltegarria.

Bukatzeko, agur bero eta jator bat helarazi nahi nizueke idatzi hau irakurtzeko borondatea izan duzuen guztioi, milesker. Ondoren doazen hau baino orri interesgarriagoetara joan zaitezten gonbidatuz agurtzen naiz.



tuna, con medios técnicos y materiales como nunca antes en la historia de la humanidad destinados al saber y al conocimiento. Y con ellos podemos entender el desarrollo de nuestra sociedad, lo que nos ha conducido a ser lo que somos, a la vez que nos permite entender qué se ha hecho mal para enmendarlo en los tiempos venideros.

Se formuló el concepto de sostenibilidad como una mesa sobre tres patas: sostenibilidad ecológica, sostenibilidad social y sostenibilidad económica. Parece que la social, al menos en cuanto al respeto a la actividad de tantos miles de propietarios de montes y gente que vive en el medio rural, así como la económica, son partes perfectamente prescindibles, mientras que a aquella mesa, equilibrada sobre las tres patas, queda en una situación en la no puede tenerse de pie.

Trabajemos con sensatez y conocimiento, teniendo presentes los errores que se pudieron cometer, pero también los grandísimos aciertos que se deben a las generaciones anteriores, respetemos a quienes antes que nosotros hicieron lo posible para que ahora vivamos como lo podemos hacer, no nos olvidemos de que los precursores del pino insigne, del eucalipto o de otras especies foráneas lo fueron el nogal, el castaño, el melocotonero, los tomates o las patatas, y quitémonos el velo de los prejuicios que hace que una especie forestal sea declarada como buena o condenada como mala en juicio riguroso, pues lo que será bueno o malo será el uso o el abuso que los humanos hagamos de ella.

Muchas gracias a todos lo que han brindado parte de su tiempo a la lectura de esta nota de salutación. No me queda más que remitirlos con mis mejores deseos a las más interesantes páginas interiores de este monográfico.

Bixente Dorronsoro Mintegi
Decano Presidente de la Asociación y
C.O.I.T. F. en Euskadi